



1. ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO UDALA

Elgoibarko Udalak ikasleek euskaraz idazteko duten trebetasuna sustatzeko, **'Elgoibarko VII. Idazlan lehiaketa'** jarri du abian.

2. NORK PARTE HAR DEZAKE?

Elgoibarko ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleak.

Elgoibarren errolatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten ari direnak.

Ikasle hauek parte hartu ahal izango dute:

A taldea: LH 3 eta 4

B taldea: LH 5 eta 6

C taldea: DBH 1 eta 2

D taldea: DBH 3 eta 4

E taldea: Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa

Ikasle bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.

3. LANEN EZAUGARRIAK

Nolakoak izan behar dira lanak?

- Lanak euskaraz idatzita egon behar dira.
- Jatorrizkoak izan behar dira, ez koptatutakoak.
- Aurrez saritu gabeko lanak izango dira.
- Aurrez argitaratu gabeko lanak izango dira.

Zein da gaia?

- Gaia librea izango da, norberak nahi duen gaia.

Zenbat orrikoak izan behar dira idazlanak?

A taldea: orrialde 1 gehienez ere.

B taldea: 2 orrialde gehienez ere.

C taldea: 3 orrialde gehienez ere.

D taldea: 4 orrialde gehienez ere.

E taldea: 5 orrialde gehienez ere.

4. LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko **azken eguna martxoaren 11** izango da.

5. LANAK NOLA AURKEZTU

- A4 neurrian
- Orriaren alde batetik idatzita
- Ordenagailuz (Arial 12 eta 1,5eko lerro-tartearekin), LH 3 eta 4 mailetako ikasleek lanak eskuz idatzita aurkezteko aukera ere izango dute.
- Lehen orrialdean IZENBURUA eta GOITIZENA azalduko dira.
- Lan bakoitzeko **hiru kopia** aurkeztuko dira.

6. LANAK NON AURKEZTU

Elgoibarko ikasleek eskolan bertan entregatuko diote lana tutoreari edo dagokion irakasleari. Herritik kanpo ikasten duten ikasleek HAZen (Santa Ana kalea 2) entregatu beharko dituzte lanak, kartazal handi batean sartuta eta azalean ikasmila eta goitizena jarrita. Eta barruan, beste kartazal txikiago batean, datu pertsonalak jarri beharko dituzte.

7. LANEN AUKERAKETA

Ikastetxeak egingo du lehen aukeraketa, eta gela bakoitzeko, batez beste, **5 lan** aukeratuko ditu, baina kopuru horrekin era malguan jokatuko da, Udalaren oniritzia jasotzen bada. Aukeratutako lanak Udaleko Euskara sailera eramango ditu, mailaz maila taldekatuta, baina egileen daturik gabe. Ikastetxea arduratuko da datu horiek gordetzeaz. **Idazlan bakoitzaren goian azaldu beharko da izenburua, ikasmila eta egilearen goitizena. Epaimahaia** Udalak izendatuko du eta herriko idazleak edo idazteko zaletasuna duten herritarrak izango dira. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta aurkeztutako lanak egokiak ez direla irudituz gero, sariak eman gabe gera daitezke.

8. SARIAK

A eta B taldekoen artean 2 sari emango dira ikastetxe eta maila bakoitzeko. C eta D taldeetan, lau lanik onenek jasoko dute saria, eta E taldean, bi sari emango dira.

A taldea (8 sari): diploma, liburu bat eta 50 €-ko bonua.

B taldea (8 sari): diploma, liburu bat eta 60 €-ko bonua.

C taldea (4 sari): diploma, liburu bat eta 80 €-ko bonua.

D taldea (4 sari): diploma, liburu bat eta 100 €-ko bonua.

E taldea (2 sari): diploma, liburu bat eta 120 €-ko bonua.

9. SARI BANAKETA

Sarien banaketa eguna, lekua eta ordua behar bezala jakinaraziko zaie irabazle guztiei. **Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute, eta ezinezkoa bazaie, ordezkariaren batek jaso beharko du euren izenean.**

10. EGILE ESKUBIDEAK

Saritutako lan guztiak Elgoibarko Udalaren jabetzara pasako dira, beraz, lan horiek argitaratzeko eta zabaltzeko behar diren egile-eskubideak doan emango dira. Saritu gabeko lanak hilabeteko epean jaso ahal izango dira aurkeztutako leku berean, eta epe horren buruan jaso ez direnak suntsitu egingo dira.

11. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeko oinarri guztiak onartu behar dira. Oinarri hauetan jasotzen ez den edozein arazo gertatzen bada, epaimahaiak hartuko du erabakia eta erabaki hori ezin izango da atzera bota.